

V - BESTELAKOAK

SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOA

Lapurreten eta suteen kontrako babes-sistemen, su-itxalgailuen eta suteetako ur-hartune ekipatuen mantentze-zerbitzua eta alarmak jasotzeko eta Santa Maria Katedrala Fundazioaren jabetzakoak diren edo Fundazioak erabiltzeko eman dituen eraikinetako giltzak zaintzeko zerbitzua emateko prozedura irekizko lizitazioa

1. Erakunde adjudikatzailea: Santa Maria Katedrala Fundazioa.

2. Kontratuaren helburua:

A) Helburuaren deskribapena: lapurreten eta suteen kontrako babes-sistemen, su-itxalgailuen eta suteetako ur-hartune ekipatuen mantentze-zerbitzua eta alarmak jasotzeko eta Santa Maria Katedrala Fundazioaren jabetzakoak diren edo Fundazioak erabiltzeko eman dituen eraikinetako giltzak zaintzeko zerbitzua ematea.

B) Banaketa loteka: ez.

C) Iraupena: bi urte, gehi behin-behineko bi luzapen, urtebetekoak.

3. Izapidea, prozedura eta adjudikatzeko era.

A) Izapidea: ohikoa.

B) Prozedura: irekia.

C) Era: ekonomikoki onena den eskaintza, (100 puntu arte).

Ohiz kanpoko balioak edo balio neurrigabeak dituzten eskaintzat joko dira, ezaugarrien koadroko "I" atalean zehaztutako prezioak baino baxuagoak badituzte.

4. Kontratuaren gutxi gorabeherako zenbatekoa:

Kontratuaren balioa, gutxi gorabehera 44.560,00 eurokoa (BEZ gabe) izan daiteke lau urterako, hau da kontratuko bi urte gehi bi urtebeteko luzapen.

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: lizitazioaren aurrekontu-oinarriaren ehuneko 5a (BEZ gabe).

6. Kontratistaren berriazko baldintzak:

Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa: Ikusi ezaugarrien taulako "O" puntua.

7. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea:

Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoak.

Tokia: Vitoria-Gasteizko Aiztogile kalea, 93.

Telefonoa eta faxa: 945122160.

Edo Kontratugilearen profilean: www.catedralvitoria.eus

8. Eskaintzen aurkezpenak:

A) Epea: ALHAOn lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik kontaktzen hasi eta hurrengo 15 egun naturaleko epea izango da.

Eskaintza postaz aurkezten bada, Administrazio Publikoen Kontratuen Lege Orokorraren Arautegiko 80. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ikusi ezaugarrien koadroa eta orri administratiboak eta teknikoak

C) Aurkezteko tokia: fundazioaren bulegoan, goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00etara. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera atzeratuko litzateke.

D) Aldaerak onartzen dira: ez.

9. Eskaintzak irekitzea:

“A” gutun-azala proposamenak aurkezteko epearen azken egunetik hasi eta bostgarren egun baliodunean irekiko da, 13:00etan, fundazioaren bulegoan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 25ean

Presidentea

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE